

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 8031** *Huts-zuzenketa, honako honena: 5/2021 Legea, apirilaren 12koa, zeinaz aldatzen baitira uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testuategina eta beste finantza-arau batzuk, sozietate kotizatueta akziodunen epe luzerako inplikazioaren sustapenari dagokionez.*

Apirilaren 12ko 5/2021 Legea argitaratu zen 2021eko apirilaren 13ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, 88. zenbakian, lege horren bidez aldatzeko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testuategina eta beste finantza-arau batzuk sozietate kotizatueta akziodunen epe luzerako inplikazioaren sustapenari dagokionez; bada, hutsak aurkitu ditugu lege horretan, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

40967. orrialdean, Lau apartatuan, 34. artikuluari egindako aldaketan, hirugarren paragrafoaren azken-aurreko lerroan eta laugarren paragrafoaren lehen lerroan,

Hau dio: «eta eskaintza horietako bakoitzak Batasunean duen zenbateko osoa zortzi milioi eurotik beherakoa denean (muga hori kalkulatzeko, hamabi hilabeteko aldia hartuko da kontuan).

Kreditu-erakunde kasuan, ez da izango liburuxka bat argitaratzeko eginbeharririk...».

Baina hau esan behar du: «eta eskaintza horietako bakoitzak Batasunean duen zenbateko osoa zortzi milioi eurotik beherakoa denean (muga hori kalkulatzeko, hamabi hilabeteko aldia hartuko da kontuan). Kreditu-erakunde kasuan, ez da izango liburuxka bat argitaratzeko eginbeharririk...».

40970. orrialdean, bigarren lerroan, hau dio: «...34. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera...». Baina hau esan behar du: «...34. artikulua hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera...».

40977. orrialdean, Hogeita hamar apartatuan,

Hau dio:

«Hogeita hamar. 302. artikulua 22. apartatua eranstean zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«22. Ez badira betetzen [...] aurreikusitako betebeharrak edo debekuak».

Baina hau esan behar du:

«Hogeita hamar. 302. artikulua 23. apartatua eranstean zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«23. Ez badira betetzen [...] aurreikusitako betebeharrak edo debekuak».